



Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendariari eta Lan Harremanen Zerbitzu Korporatiboari.

Gaia: Osasuneko Mahai Sektorialeko bilera.

Pasa den ostegunean, 2023ko otsailak 23a, Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren jakinarazpena jaso genuen. Horren bidez, Osasuneko Mahai Sektorialeko bilera baterako deia egin ziguten, martxoaren 1ean, 09,30tan.

Hona hemen jasotako gai-zerrenda:

1. Garapen profesionala: lantaldea sortzea.
2. Erretiro aktiboa: erregulazioa. Dokumentua erantsi da.
3. Kontratazio-akordioa: aldaketak (Esparru Estatutuaren erreformaren ondoriozkoak barne). Dokumentua erantsi da.
4. “Osakidetzako langileen produktibitate-osagarria aplikatzeko irizpideen” proposamena. Dokumentua erantsi da.
5. Osakidetzan profesionalen ordezkariak hautatzeko hauteskunde-eremuak proposatzea. Bileran, hauteskunde-eremuei buruzko Osakidetzaren proposamena entregatuko da, sindikatuak azter dezaten.
6. Txanda-kontratua luzatzea
7. Galde-eskeak

Jasotako jakinarazpenaren edukia ikusita, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuok, honako hau adierazi nahi dugu:

Bat.- Zuzendaritza honek ondo ezagutzen ditu Mahai Sektorialeko bileretara ez joateko dauzkagun arrazoiak, eta baita bilera horietan berriro parte hartzeko gure ustez bete behar diren baldintzak ere.

Zehazki, eta behin eta berriz, bi gai zehatz planteatu dizkiogu Zuzendaritza honi, eta horiei, hirugarren bat gehitu behar dugu:

- Mahaitik, Lanbide Garapeneko eredu berriaren azken zirriborroa kentzea, aldebakarreko murrizketa onartezina delakoan. Horrekin batera, beste negoziazio zintzo, egiazko eta edukidun bat ireki behar da.
- Mahai ganean proposamen bat jartzea, gatazkan dauden langileen aldarrikapenak beteko dituen %4ko ordainketari dagokionez.

- Hauteskunde-eremuei dagokienez, Osakidetzaren proposamena helaraz diezagutela, baina horrek ez du zerikusirik izan behar Mahai Sektorialeko bilera bat egin eta bertan agertzearekin. Gogoratu behar da sindikatuek dagoeneko helarazi diogula proposamena Osakidetzari.

Bi.- Hala ere, jasotako jakinarazpena ikusita, argi dago Zuzendaritza honek ez diela jaramonik egiten sindikatuon aldarrikapen eta eskaerei, eta bere ibilbidearekin jarraitzen duela.

Hiru.- Lanbide Garapenari dagokionez, lantalde bat sortzea aipatzen da. Ez dakigu zein helbururekin sortzen den aipatutako taldea eta zein izango litzatekeen haren zeregina. Era berean, ez da zehazten Osakidetzak aurkeztu eta behin betikotzat jo zuen azken zirriborroa baztertuta geratzen den, ezta Osakidetzak dagoeneko egin behar zuen 2022ko ohiko deialdiarekin zer gertatzen den ere.

Lau.- %4ko osagarriari dagokionez, aipamen bakar bat ere ez du egiten. Eta hori, gatazkak aurrera jarraitzen duen arren. Osakidetzak berriro isladatzen du ez duela konpontzeko borondaterik.

Bost.- Hauteskunde sindikalen gaiari dagokionez, eta berriaz eskatu arren, ez zaigu helarazi Osakidetzaren proposamena bileraren aurretik.

Gure ustez, dokumentua Mahai Sektorialean bertan aurkeztu nahi izateak beste asmo bat adierazten du, gai honen negoziazioaz haratago, are gehiago kontuan hartzen badugu dokumentu hori dela alde aurretik bidali ez zaigun bakarra. Gai-zerrendako gainerako puntuei buruzko dokumentuak erantsi dizkigute, hau izan ezik.

Gogoratu behar da konpromiso bat dagoela proposamenak eta dokumentazioa bidaltzeko Mahai Sektorialeko bilerak egin aurretik.

Sei.- Azaldutako guztiagatik, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuok uste dugu momentu honetan, ez direla beharrezko baldintzak ematen Mahai Sektorialeko bilerara joateko, Osakidetzak bizkarra ematen baitio benetako negoziatioari, akordioak lortzeko inolako borondaterik erakutsi gabe.

Euskal Herria, 2023ko martxoak 1.



A la Atención de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza Servicio Vasco de Salud y al Servicio Corporativo de Relaciones Laborales.

Asunto: reunión de la Mesa Sectorial de Sanidad.

El pasado jueves, 23 de febrero de 2023, recibimos comunicación de la Dirección de Recursos Humanos, en la que se nos emplaza a una reunión de la Mesa Sectorial de Sanidad para el próximo día 01 de marzo, a las 9.30h.

El orden del día recibido, es el siguiente:

1. Desarrollo Profesional: creación de grupo de trabajo.
 2. Jubilación activa: regulación. Se adjunta documento.
 3. Acuerdo de contratación: modificaciones (incluyendo las derivadas de la reforma del Estatuto Marco). Se adjunta documento.
 4. Propuesta de “Criterios de aplicación del complemento de productividad del personal de Osakidetza”. Se adjunta documento.
 5. Propuesta de ámbitos electorales para celebración de elecciones a representantes de profesionales en Osakidetza.
- Durante la reunión se hará entrega de la propuesta de Osakidetza en relación a los ámbitos electorales para su análisis por la parte social.
6. Prórroga Contrato Relevó
 7. Ruegos y preguntas

A la vista del contenido de la comunicación recibida, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT, deseamos señalar lo siguiente:

Primero.- Son de sobra conocidas, por parte de esta Dirección, las razones que nos han llevado a no asistir a las reuniones de la Mesa Sectorial y las condiciones que entendemos que tienen que darse para volver a participar en ellas.

En concreto y de manera reiterada, hemos planteado a esta Dirección dos cuestiones concretas, a las que se añade una tercera:

- Que se retire de la Mesa el último borrador del nuevo modelo de Desarrollo Profesional por entender que se trata de un recorte unilateral e inadmisibile. Ello debe venir acompañado de la apertura de una nueva negociación honesta, real y con contenido.
- Que se ponga encima de la mesa una propuesta en relación con el abono del 4% que satisfaga las reivindicaciones de los trabajadores y trabajadoras en conflicto.

- En relación con los ámbitos electorales, que se nos haga llegar la propuesta de Osakidetza, sin que ello deba estar ligado a la celebración y comparecencia en una reunión de Mesa Sectorial. Cabe recordar que la parte sindical ya ha hecho llegar su propuesta a Osakidetza.

Segundo.- Sin embargo, a la vista de la comunicación recibida, es evidente que esta Dirección hace caso omiso a las reivindicaciones y peticiones de la parte sindical, y sigue con su hoja de ruta.

Tercero.- En relación con el Desarrollo Profesional, se habla de la creación de un grupo de trabajo. Desconocemos con qué objetivo se crea el grupo citado y cuál sería su cometido. Asimismo, no se especifica si el último borrador que Osakidetza presentó y dio por definitivo queda descartado, ni tampoco qué pasa con la convocatoria ordinaria de 2022 que Osakidetza ya debería haber realizado.

Cuarto.- En cuanto al complemento del 4%, ni una sola mención. Y ello a pesar de que el conflicto sigue adelante. Osakidetza vuelve a mostrar su nula voluntad de solucionarlo.

Quinto.- En relación con el tema de las elecciones sindicales, y a pesar de haberlo solicitado expresamente, no se nos hace llegar la propuesta de Osakidetza con carácter previo a la reunión.

Entendemos que la pretensión de entregar el documento de manera presencial en la propia Mesa Sectorial, manifiesta otra intencionalidad más allá de la propia negociación de este asunto, máxime si tenemos en cuenta, que este es el único documento que no se nos remite con carácter previo. Se nos adjuntan los documentos relativos al resto de puntos del orden del día, salvo este.

Cabe recordar que existe un compromiso para enviar las propuestas y documentación para análisis por nuestra parte con antelación suficiente a la celebración de la Mesa Sectorial.

Sexto.- Por todo lo expuesto, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT, entendemos que en estos momentos no se dan las condiciones necesarias para acudir a la reunión de la Mesa Sectorial a la que hemos sido convocados, ya que Osakidetza sigue dando la espalda a una negociación real y sin demostrar ninguna voluntad de alcanzar acuerdos.

Euskal Herria, a 01 de marzo de 2023.